

**GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2013	318.020.776 euros
		2014	327.284.199 euros

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena ZERBITZU OROKORRAK

Kodigoa 3.01

Genero Egokitasuna Txikia

Aurrekontua 1.987.726

1. taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentajea**

	2012	2013	2014	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	1.999,78	1.778,05	1.987,73	-11,09%	11,79%
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREKIKO %	0,62%	0,56%	0,61%	-9,56%	8,63%

Programa honek Gizarte Politikako Departamentuaren aurrekontuaren % 0,60 hartzen du.

Helburuak, hartzaileak eta programak dituen jarduerak

Helburuak: Departamentuari dagozkion Berdintasunaren plana neurriak inplementatzea.

Hartzaileak: Administrazioako langileengan ardaztutako jarduketa. Herritarrengan zeharka bakarrik eragiten du

Jarduerak:

Plana gauzatzeko proposamena eta jarraipenaren bilerak koordinatzea

Departamentuaren aurrekontuen programak, generoaren ikuspegitik abiatutako analisia koordinatzea.

Kontratazioaren prozeduretan genero ikuspegia sartzea.

Diru-laguntza emakidetarako prozeduretan genero ikuspegia sartzea.

Departamentuko ikus-entzun eta idatzizko komunikazioetan hizkuntza berrikustea genero ikuspegitik



Beharrezkoa denean datuak sexuari jarraituz banatzea proposamena egitea

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Esan den bezala programak ez dauka herritarrengan eragin zuzenik, administrazioko langileengan bakarrik eragiten du. 2014an zehar Departamentuari dagozkion neurriak betetzeko ahaleginak egingo dira.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Horrelako azterketa edo hausnarketa kualitatiboa, Foru Aldundiaren berdintasunaren planean departamentuari egotzitako neurri zehatzei dagokien programa bakoitzean egiten da.

**GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2013	318.020.776 €
		2014	327.284.199 €

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Desgaituen laguntza

Kodigoa 3.10

Genero egokitasuna Handia

Aurrekontua 49.099.721

1. Taula

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentajea

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	42.138.264	47.517.249	47.955.025	48.898.074	12,80	0,90	0,02
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUREKIKO %	11,80	14,70	15,08	14,46	0,03	0,38	-0,62

Programa honek Departamentuaren aurrekontuaren % 14,46 hartzen du, eta horrek garbi erakusten du desgaituentzako zerbitzuek duten garrantzia foru politikaren barruan.

Programaren helburuak, hartzaileak eta jarduerak

Helburu nagusia da pertsona desgaituek ohiko ingurunean (etxea, familia) baldintza egokian jarraitzeko behar dituzten laguntzak ematea, eta ohiko ingurunetik aldatu behar denean arreta integraleko zerbitzuak bermatzea.

Gastuaren zatirik handiena, batetik, pertsona desgaituentzako eta, bestetik, buru-gaixoentzako egoitzen eta eguneko zentroen sare propioari eta hitzartutakoari zuzentzen zaio. Ondoren, laguntza premia zabalak dituzten pertsonentzako arreta sarea dago, Uliazpi Fundazioak kudeatutakoa.

Aurrekontu programa honetan, desgaituen eta buru-gaixoen arloan Departamentuak dituen jarduera ildo nagusiak jasotzen dira, alde batera utzita aldizkako prestazio ekonomikoak eta inbertsioak.

Hartzaileak: Desgaituak eta beren familiak.

Programak ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen du:



2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.

	2013	%	2014	%
Uliazpi Fundazioa	14.098.509	29,40	14.245.489	29,13
Desgaitasuna: Hitzarmenak erakundeekin	27.162.722	56,64	28.086.375	57,44
Adimeneko nahasmendua dutenentzako eguneko zentroak	1.003.022	2,09	996.553	2,04
Beste Batzuk	5.690.772	11,87	5.569.657	11,39
	47.955.025	100,00	48.898.074	100,00

A) Bizikidetzako aukerei dagokienez, programa honek foru sare hau finantzatzen du: laguntza premia ezberdinak dituztela, desgaituentzako egoitza plazak (egoitzak, egoitza txikiak eta etxebizitzak) eta plaza sozio-sanitarioak (adimeneko nahasmendu larriak dituztenentzako unitateak eta etxebizitzak). Beraz, atal horretan sartzen dira:

- Desgaituentzako egoitzak.
- Adimeneko nahasmendu larriak dituztenentzako bizilekuak.

B) Ohiko ingurunean jarraitzeko laguntzari dagokionez, zerbitzu hauek azpimarratu behar dira: eguneko jardueren zentroa desgaituentzat, eta errehabilitazio psiko-sozialeko zentroak adimeneko nahasmendu larria dutenentzat. Beraz, atal horretan sartzen dira:

- Eguneko jardueren zentroak desgaituentzat.
- Errehabilitazio psiko-sozialeko zentroak adimeneko nahasmendu larria dutenentzat.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

3. taula. Zerbitzu nagusietan arreta jaso dutenak, 2012. urtean:

	TOTAL	G	E
Egoitzak. Desgaitasuna	806	57,3%	42,7%
Egoitzak. Buruko gaixotasuna	236	70,8%	29,2%
Eguneko zentroak. Desgaitasuna	638	53,6%	46,4%
Eguneko zentroa. Buruko gaixotasuna	238	65,1%	34,9%
GUZTIRA	1.918	58,7%	41,3%



4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2012. urtean
(Arreta jaso duten pertsonak 100 biztanleko)

712.534	Guztira	G	E
Egoitzak. Desgaitasuna	0,11	0,13	0,09
Egoitzak. Buruko gaixotasuna	0,03	0,05	0,02
Eguneko zentroak. Desgaitasuna	0,09	0,10	0,08
Eguneko zentroa. Buruko gaixotasuna	0,03	0,04	0,02
GUZTIRA	0,27	0,32	0,22

5. taula. Mendeko biztanleriaren banaketa
(mendetasuna duten 65 urte goitiko pertsonen kopurua)

	G	E	Guztira
Zk.	3.404	2.499	5.903
%	57,7%	42,3%	100,0%

6. Taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2012an, mendeko biztanleriari dagokionez
(artatutako pertsonak mendeko 100 biztanleko)

	Guztira	G	E
Egoitzak. Desgaitasuna	13,65	13,57	13,77
Egoitzak. Buruko gaixotasuna	4,00	4,91	2,76
Eguneko zentroak. Desgaitasuna	10,81	10,05	11,84
Eguneko zentroa. Buruko gaixotasuna	4,03	4,55	3,32
GUZTIRA	32,49	33,08	31,69

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Hirugarren taulan ikus daitekeenez, gizonen portzentajea handiagoa da lau zerbitzu handietan. Alde hori bereziki nabarmena da adimeneko nahasmendu larria dutenentzako zerbitzuetan, gizonen portzentajeak emakumeena bikoizten baitu.

Biztanleria orokorrean hartuta (4. taula), estaldura tasak nabarmen handiagoa dira gizonen artean.

Fenomeno horren lehen azalpen bat hau izan daiteke: ikerketa guztiek agerian uzten dute emakumeak gizonetako baino urte gehiago dituztela hasten direla horrelako zerbitzuak erabiltzen. Arrazoi kulturalak direla eta, emakumeek luzarago mantentzen dute beren autonomia (edo autonomia pertzepzioa). Era berean, familiak gehiago behartzen ditu gizonetakoak euren etorkizunari buruzko erabakiak hartzera.



Dena den, azterketa zehatzago bat eginez gero, gogoeta honetara iritsiko ginateke: Zerbitzu mota horiek “mendekoak” adiera orokorraren barruan sartzen direnei zuzentzen zaizkie oro har; hau da, zehatzago esanda, mendetasun egoeran dagoen 65 urteko baino gehiagoko jendeari buruz ari gara.

Biztanleriaren segmentu hori aztertzen badugu (5. taula), sexuen artean asimetria garrantzitsu bat dagoela ikusiko dugu. Neurri batean, horren arrazoa zera da: mendetasunek eta adimeneko nahasmendu larriek eragin handiagoa dutela, oro har, gizonen artean (autismoa, traumatismoen ondorioz sorturiko desgaitasunak, toxikoen kontsumoen ondoriozko nahasmendu mentalak...).

Gerta daiteke, orobat, lehenago aipatu diren faktore kulturek argitzea balorazio tasa zergatik diren txikiagoa emakumeen artean; hau da, gerta daiteke balorazioa eskatzeko urratsa eman ez duten emakumeak egotea, mendekoak izan arren.

Edozein erataria, kalkulatu badugu 65 urte baino gutxiago izan eta mendetasun egoeran dagoen biztanleriaren estaldura tasa (mendekoak dira zerbitzu horien berezko hartzaileak), ikusiko dugu generoaren arabera aldea izugarri murrizten dela, praktikoki ia desagertzeraino (6. taula). Halarik ere, aldeak garrantzitsua izaten jarraitzen du adimeneko nahasmendu larrientzako zerbitzuetan, horietan gizonezkoen pisua ia erabatekoa baita, nahiz eta pisu hori neurri batean orekatzen den desgaitasunaren zerbitzuetan (arlotan horretakoak dira zerbitzu gehienak), aldeak kontrako norabidekoa hartzen baitu.

Bestalde, azpimarratu behar da gizarte zerbitzuen “feminizazioa” are nabarmenagoa dela zerbitzuetan lan egiten duten emakumeen portzentajeari erreparatzen badiogu.

GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2013	318.020.776 EUROS
		2014	327.284.199 EUROS

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Adinekoen zaintza

Kodea 3.11

Generoaren garrantzia: Handia

Aurrekontua 128.966.890

1. taula.

Programaren aurrekontua eta azken urteotako portzentajea Departamentuarentzat

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	124.963	128.829	127.081	128.967	3,09%	-1,36%	1,48%
DEPARTAM. AUREKONT. %	35,14%	39,86%	39,96%	39,41%	13,43%	0,25%	-1,39%

Helburuak, hartzaileak eta programak dituen jarduerak

Helburu nagusia da adineko mendekoek ohiko ingurunean (etxea, familia) baldintza egokian jarraitzeko behar dituzten laguntzak ematea, eta ohiko ingurunetik aldatu behar denean arreta integraleko zerbitzuak bermatzea.

Gastuaren zatirik handiena adinekoentzako egoitzen sare propioari eta hitzartutakoari zuzentzen zaio. Ondoren, eguneko zentroen sarea eta mendekoentzako udaleko etxeko laguntza zerbitzuaren foru finantzazioa daude.

Aurrekontu programa honetan, adineko mendekoen arloan Departamentuak dituen jarduera ildo nagusiak jasotzen dira, alde batera utzita aldizkako prestazio ekonomikoak eta inbertsioak. Departamentuan aurrekontu handiena duen programa da.

Hartzaileak: adineko mendekoak eta beren familiak. Gipuzkoan, graduren bateko mendekotasun maila duten adinekoak 19.800 dira.

Programak ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen du:

**2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.**

	2013	%	2014	%
Egoitzak	85.205.057	67%	83.691.264	65%
Etxeko laguntza (mendekoak)	14.862.490	12%	14.862.490	12%
Eguneko zentroak	19.931.614	16%	17.846.463	14%
Mendekotasunaren balorazioak	1.484.990	1%	1.484.990	1%
Sendian (2)	1.920.369	2%	1.700.004	1%
Beste batzuk	3.676.879	3%	9.381.679	7%
Guztira	127.081.399	100%	128.966.890	100%

1. tarifa.- Egoitza unitate sozio-sanitarioak barne

(2) Egoitzetako eta eguneko zentroetako aldi baterako egonaldiak barne.

A) Bizikidetzako aukerei dagokienez, programa honek finantzatzen du adineko mendekoentzako egoitza plazen eta plaza soziosanitarioen foru sarea.

- Adineko pertsonentzako egoitzetako programa.
- Egoitza unitate sozio-sanitarioak

B) Ohiko ingurunean jarraitzeko laguntzei dagokienez, besteak beste:

- Mendekoei eskainitako udaleko etxeko laguntza zerbitzua finantzatzea.
- Adinekoentzako eguneko zentroak
- Familia zaintzaileei laguntzeko Sendian programa.

Bukatzeko, hemen kokatzen da baita ere desgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioa. Balorazioa funtsezkoa da Departamentuak kudeatzen dituen prestazioak eta gizarte zerbitzuak eskuratu ahal izateko, indarrean dagoen legedia betez.

- Mendekotasun eta desgaitasunaren balorazioa

Balorazioren barne hiru tresna daude: MBB, RAI eta desgaitasuna. Aipatu beharrekoa da ezen balorazioa, nahiz eta jasota egon adineko pertsonentzako arretarako programaren aurrekontuan, biztanleri guztiari zuzenduta dagoela; hala ere, praktikan, MBB eta RAI balorazioa duten pertsona gehienak adineko pertsonak dira, baina ez da horrela gertatzen degaitasunaren kasuan, adin desberdin gehiago hartzen dituelako.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera**3. taula. Zerbitzu nagusietan 2012. urtean arreta jaso dutenak:**

	TOTAL	GIZONAK	EMAKUMEAK
Adineko mendekoak guztira	19.866	6.853	13.013
Egoitzak	5.933	30,0%	70,0%
Etxeko laguntza (mendekoak)	2.889	25,8%	74,2%
Eguneko zentroak	2.174	37,0%	63,0%
Sendian	1.403	31,8%	68,2%
Arreta jaso dutenak	12.399	30,4%	69,6%
ZERBITZUEN BIDEZ LORTUTAKO ERAGINKORTASUNAREN PORTZENTAJE GORDINA	62,4%	55,1%	66,3%



Ikus daitekeenez, emakumezko gehiago daude zerbitzu publikoko estalduraren bat jasotzen dutenak, prestazio ekonomikoak kontuan hartu gabe. Nolanahi ere, kopuru horiek tentuz erabili behar dira, elkarren artean bateragarriak diren zerbitzuak baitaude, eta zerbitzu bat baino gehiago jasotzen duten pertsonak egon daitezke.

4 Taula. 2012. urtean egindako balorazioak.

	TOTAL	HOMBRES	MUJERES
65 urte baino gehiagokoak	139.097	58.513	80.584
MBB	9.239	39,7%	60,3%
MBB balorazio tasa	6,6%	6,3%	6,9%
RAI	5.534	35,8%	64,2%
RAI balorazio tasa	4,0%	3,4%	4,4%
Biztanleria, guztira.	712.534	348.939	363.595
DESGAITASUNA	6.332	44,5%	55,5%
DESG. Balorazioaren tasa.	0,9%	0,8%	1,0%

Ikus daiteke emakumeen proportzioa handiagoa dagoela MBB eta RAI balorazioa egin zaien artean. Mota honetako balorazioetan, orokorrean gehienbat adineko pertsoneri egiten zaie. Balorazioak lotzen badira adineko biztanleriarekin "MBB balorazioaren Tasa" baten edo "RAI balorazioaren tasa" baten bidez, antzematen da tasa hori berdintze aldera egiten duela gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Hala ere emakumezkoen artean jarraitzen du zertxobait handiagoa izaten.

Desgaitasunaren kasuan, antzematen da 10 puntuko aldea emakumezkoen aldetik. Kasu honetan, erreferentziako biztanleria guztizkoa dela (edozein adinekoa), balorazioaren tasa zertxobait handiagoa da emakumezkoen artean.

5. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2012an

(Arreta jaso duten pertsonak, 65 urtetik gorako eta 75 urtetik gorako 100 biztanleko)

	65 y +			75 y +		
	T	H	M	T	H	M
Egoitzak	2,92	3,6	2	5	3,5	6
Etxez etxeko laguntza (Mendekoak)	2,5	1,4	3,3	4,3	2,6	5,3
Eguneko zentroak	0,95	1,22	0,59	1,63	1	2
Sendian	0,9	0,7	1,1	1,6	1,1	1,8

Ikus daitekeenez, estaldura nabarmen igotzen da adinak gora egin ahala, eta ia bikoiztu egiten da 75 urtetik gora.

6. taula. Egoitzetan arreta jaso duten pertsonen banaketa ehunekotan 2012. urtean, mendekotasun graduaren eta generoaren arabera

	TOTAL	GIZONEZKOAK	EMAKUMEAK
	%	%	%
0 Gradua	3	5	2
1 Gradua	14	21	10
2 Gradua	31	33	30
3 Gradua	52	41	58



Ikus daitekeenez, emakumezkoen proportzio handiagoa dago mendekotasun gradu handiengan eta kontrakoa gertatzen da gradu txikiengan.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Azterketak erakusten du emakumezkoak gainordezkatuta daudela gizonezkoen aldean, adineko mendekoentzako arreta zerbitzu guztietan. Arrazoa sinplea da: emakumezkoak urte gehiago bizi direnez, adinean aurrera egin ahala, piramide demografikoa desorekatu egiten da. Eta zenbat eta urte gehiago, desoreka handiagoa eta mendekotasunaren prebalentzia handiagoa. Kontuan hartzen badugu zerbitzu horiek erabili "ohi" dituzten pertsonen 80 urte edo gehiago dituztela, diferentziala logikoa da.

Hauxe gertatzen da ere (MBB eta RAI) mendekotasunaren balorazioekin; alde batetik emakumezkoen egindako balorazioen proportzioa handiagoa da, baina baita balorazioaren tasa handiagoa antzematen da ere, bizitza luzera handiagoak sortzen baitu emakumeak mendekotasun egoerara iristea.

Ikerketa guztiek agerian uzten dute emakumeek gizonezkoek baino urte gehiago dituztela erabiltzen dituztela horrelako zerbitzuak. Arrazoi kulturalak direla eta, emakumeek luzaroago mantentzen dute beren autonomia. Bizitza-luzerako diferentziarik ez balego eta gizonezkoek emakumezkoen bizi itzaropena izango balute, generoaren araberako erabiltzaileen proportzioa orekatu egingo litzateke edo murriztu egingo litzateke emakumezkoen kasuan.

Bestalde, azpimarratu behar da gizarte zerbitzuen "feminizazioa" are nabarmenagoa dela zerbitzuetan lan egiten duten emakumeen portzentajeari erreparatzen badiogu. Gipuzkoan portzentaje hori % 67koa da zerbitzu guztietarako eta % 75koa adineko mendekoentzako zerbitzuetarako.

GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2013	318.020.776 euro
		2014	327.284.199 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena PLANGINTZA ETA INFORMAZIO SISTEMAK

Kodea 3.20

Genero Egokitasuna Baxua

Aurrekontua 2.192.493

1Taula

Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila euroka)	2.415,26	2.271,57	2.186,14	2.192,49	-5,95%	-3,76%	0,29%
DP AURREKONTUAREKIKO	0,68%	0,70%	0,00%	0,67%	3,48%	-99,90%	97351,85%

Programaren helburuak, hartzailleak eta jarduerak

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa lantzea edota ebaluatzea.

Gizarte zerbitzuei buruzko informazio-sistema mantentzea eta hobetzea.

Gizarte zerbitzuen inguruko azterlanak eta ikerketa proiektuak lantzea.

Azterketa kuantitatiboa generoen arabera

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Gizarte zerbitzuetan emakumeen eta gizonezkoen arteko egoera bereizgarrien ezaguera ahal izateko eguneratutako estadistiken mantenua eta egokitzapena.

Azterlan eta plan guztietan generoa sartzea azterketa maila bezala.

Eskaintza eta Jardueraren dokumentuan oinarritzko datuetan **%96n** genero ikuspegia jaso da.



Gipuzkoako 2013-2016 Gizarte Zerbitzuetako Maparen zirriborroan genero ikuspegia jaso da 13 adierazleetan, sexuaren banaketa jaso daitekeen **%100** adierazleetan.

Pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren gainean 2014 urtean egingo den inkestan, gizarte-bazterkeriaren begiraileen artean, sexuaren banaketa jaso daitekeen **%100** adierazleetan jaso da.

**GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2013	318.020.776 euro
		2014	327.284.199 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Inbertsioetarako eta gizarte lankidetzarako plana.
Kodigoa	3.21
Genero Egokitasuna	Handia
Aurrekontua	7.262.918

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	24.530,00	10.638,00	8.158,00	7.262,92	-56,63%	-23,31%	-10,97%
DEPARTAMENTUAREN AUREKONTUAREKIKO %	6,90%	3,29%	2,57%	2,22%	-52,28%	-22,06%	-13,49%

Programa honek Departamentuaren aurrekontuaren % 2,6 bakarrik hartzen du. Gainera, 2013an, nabarmen gutxitu da bere pisu erlatiboa.

Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak

Helburu orokorra da Departamentuko obren eta inbertsioen lizitazioa, esleipena eta jarraipena egitea. Horrez gain, urtero diru laguntza deialdi bat kudeatzen du arlo diferenteetako elkartentzat eta desgaituentzako laguntza teknikoetako inbertsioak.

2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.

	2012		2013	
Gizarte ekimenerako laguntza plana	787.453	7,40%	787.453	9,66%
Desgaitasunareko laguntza teknikoak	1.300.000	12,22%	1.300.000	15,94%
Beste batzuk	8.550.668	80,38%	6.071.178	74,42%
Guztira	10.638.121	100%	8.158.631	100%

Gastuaren zatirik handiena inbertsioetarako da. Alabaina, generoari buruz daukagun informazioa gizarte ekimenerako laguntza planari eta desgaituentzako laguntza teknikoetarako buruzkoa da.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

**3. taula. Zerbitzu nagusietan 2012. urtean arreta jaso dutenak:**

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Gizarte ekimenerako laguntza plana	7.641	50,53%	49,47%
Desgaitasunareko laguntza teknikoak	1.127	40,64%	59,36%

Ikus daitekeenez, oreka dago diruz lagundutako elkarten partaide kopuruan. Oreka txikiagoa da sexuen araberako proportzioan, desgaituentzako laguntza teknikoetan.

4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2012n

(Boluntarioen portzentajea guztizko biztanleriaren gainean)

714.360 biztanle	GUZTIRA	G	E
Gizarte ekimenerako laguntza plana	1%	0,50%	0,50%
Laguntza teknikoak	0,16%	0,06%	0,09%

Ikus daitekeenez, biztanleria osoa hartuta, diruz lagundutako elkarten portzentajea adierazgarria da. Laguntza teknikoak jasotzen dituzten pertsonen kopurua txikiagoa da.

5. taula. Gizarte ekimenerako laguntzak: sektoreka emandako diru laguntzak

ARRETA SEKTOREA	2012n EMANDAKO LAGUNTZA	
Desgaitasuna duten pertsonak	425.456	54%
Adinekoak	27.998	3,60%
Familia	8.612	1,10%
Haurrak eta gazteak	80.322	10,20%
Gizarteratzea	234.655	29,80%
Boluntarioak	10.000	1,30%
Beste batzuk	0	0%
GUZTIZKOAK	787.043	100%

Bestalde, ikus daiteke gizarte ekimenerako laguntza planaren gastua nagusiki desgaituentzako eta gizarteratzeko ekimenen artean banatzen dela.

**GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2013	318.020.776 euro
		2014	327.284.199 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	ALDIZKAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK
Código	3.22
Genero Egokitasuna	Handia
Aurrekontua	71.179.782

1 Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila euroka)	66.681,09	66.738,27	66.122,11	71.179,78	0,10%	-0,92%	7,65%
DP AURREKOJTUAREKIKO	18,75%	20,65%	20,79%	21,75%	10,12%	0,70%	4,60%

Programa honek soilik, Departamentuaren %20a suposatzen du, horrek adierazten du foru politikan prestazio ekonomikoak duten indarra. Indar erlatiboa mantendu da.

Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak

Programa honen helburu orokorra diru-sarrerak ez dituztenei diru-sarrerak bermatzea da eta bestalde, laguntza ekonomikoa ematea mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonak bere ohizko inguruan mantentzeko (etxea, sendia).

Hartzaila: alde batetik diru-sarrerak ez dituzten pertsonentzat eta babes ekonomikorik ez dutenentzat, eta bestetik, mendekotasuna duten pertsonentzat eta beraien familientzat, komunitatean bizi nahi dutenentzat erakundeen arretatik kanpo.

- Gastu handiena Mendekotasunaren Legean ezarritako prestazio ekonomikoei bideratuta dago; Kotizatu Gabeko Pentsioak indar handia dute eta baita ere Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza, geroz eta indar handiagoa duena.

Aurrekontu programa honek Departamentuko jardueraren ildo nagusiak jasotzen ditu, babes ekonomikorik ez dutenentzat alde batetik, eta bestetik, komunitatean arreta jasotako mendekotasuna duten pertsonak, hau da, erakundeen arretatik kanpo.

Programa honek ondorengo ekintzen finantzaketa jasotzen du:

**2 Taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.**

	2012		2013	
Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa	37.206.121	%57,57	36.819.159	%55,68
Kotizatu Gabekoen Pentsioa	14.622.721	%22,63	14.600.000	%22,08
Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa	8.712.963	%13,48	9.312.963	%14,08
Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza			2.439.278	%3,69
Bestelakoak	4.084.499	%6,32	2.950.716	%4,46
Guztira	64.626.304	%100,00	66.122.116	%100,00

A) Babesgabetasun ekonomikoari buruzkoak:

- Gizarte Ongizateko Fonda, MGL pentsioak, Kotizatu Gabekoen Pentsioak eta Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza.

B) Mendekotasunaren legearen prestazio ekonomikoei buruzkoak:

- Zerbitzuari lotutakoa
- Familia Inguruneko Zaintzetarakoa
- Laguntza Pertsonalerakoa

Azterketa kuantitatiboa generoen arabera**3. taula. Zerbitzu nagusietan 2013/06/30ean arreta jaso dutenak**

	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa	9.667	%37,7	%62,3
Kotizatu Gabekoen Pentsioa	2.925	%39,7	%60,3
Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa	1.474	%27,1	%72,9
Zerbitzuari lotutako Prestazio Ekonomikoa	108	%26,9	%73,1
DBL (2013/09/30)	1071	%70	%30
Bestelakoak	528	%22,95	%77,05
GUZTIRA	15.773	%37,39	%62,61

Ikus daiteke prestazio ekonomiko guztietan emakumeen proportzioa handiagoa dela, bai mendekotasunekin lotuta daudenak, eta baita ere ekonomia baliabidegabeziarekin lotuta daudenak, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzaren salbuespenarekin, non gizonezkoek nagusitzen dira (%70).

**4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2013n**

(Arreta jasotako pertsonen portzentajea Gipuzkoako guztizko biztanleriaren gainean)

714.360	BIZTANLERIA GUZTIRA		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Familia Inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa	1,35	0,51	0,84
Kotizatu Gabekoen Pentsioa	0,4	0,16	0,25
Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa	0,21	0,05	0,15
Zerbitzuari lotutako Prestazio Ekonomikoa	0,015	0,004	0,01
DBL (2012/07/01-2012/12/31)	0,15	0,1	0,04
Bestelakoak	0,07	0,01	0,05
GUZTIRA	2,21	0,85	1,35

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Ikus daiteke emakumezkoen populazioak estaldura handiagoa duela.

Menpekotasuna duten pertsonen artean arrazoia erraza da: emakumeen bizitza-luzera handiagoak pirámide demografikoa desorekatzea eragiten du adina aitzinatuetan.

Kotizatu Gabeko Pentsioari dagokionez, adinaren tartea irizpide izanik, 65 urte baino gutxiagoko onuradunen artean ikus daiteke %53,7ak gizonezkoak direla eta %46,3ak emakumezkoak. Hala eta guztiz ere, 65 urtetik goragoko onuradunen artean, %76,2ak emakumezkoak dira, %23,8ko gizonezkoen aurrean eta honen arrazoia, nagusiki, adina horietako emakumezkoak ez dutela behar adina kotizatu kotizatutako pentsio baten eskubidea izateko.

Bestalde, esan beharra dago, etxeetan menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileak batez ere emakumezkoak direla, %94ak, hain zuzen ere.

GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2013	318.020.776 euro
		2014	327.284.199 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena	Gizarteratzeko, Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako Zerbitzua
--------------	---

Kodea	3.30
--------------	------

Generoaren garrantzia:	Handia
-------------------------------	--------

Aurrekontua	22.847.276
--------------------	------------

1. taula.
Programaren aurrekontua eta azken urteotako portzentajea Departamentuarentzat

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTO (miles de euros)	25.563,84	23.090,01	21.819,13	22.847,28	-9,68%	-5,50%	4,71%
% PPTO PROPIO DPTO.	7,19%	7,14%	6,86%	6,98%	-0,62%	-3,96%	1,75%

Programa honek Departamentuaren aurrekontuaren % 7,0 hartzen du. 2013an bere pisu erlatiboa gutxitu da enplegu programak desagertu direlako, Departamentuaren eskumenekoak izatetik Lanbideren eskumenekoak izatera pasa direlako.

Helburuak, hartzailak eta programak dituen jarduerak

Aurrekontu programa honetan, gizarteratzearen arloan Departamentuak dituen jarduera ildo nagusiak jasotzen dira, alde batera utzita aldizkako prestazio ekonomikoak eta inbertsioak eta indarkeria matxistaren biktimen arreta.

Gizarteratzeari dagokionez, helburu orokorra da gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonak bigarren mailako arreta zerbitzuetara bideratzeko prozesuak gauzatzeko profesionalen laguntza eskaintzea.

Indarkeria matxistaren biktimenzako arreta dela eta, arreta integralak funtsezko helburu hau du: indarkeria matxistaren emakume biktimen, haien seme-alaben eta haien kargupeko pertsonen osotasun fisiko eta morala babestea eta, horretarako, horiei guztiei berehalako eta epe ertaineko arreta eskaintzea, biktimak Aldundiaren baliabideetara eta kanpokoetara bideratzea (laguntza juridikoa eta psikologikoa), biktimak berak beren prozesuen protagonistak izan daitezen bultzatzea eta, beren askatasun pertsonaren ibilbidean aurrera egin dezaten, ahalduntzen laguntzea.

Gizarte larrialdiak koordinatzeko zerbitzuan berehala artatzen dira gizarte larrialdiko egoerak, Zerbitzuen Karterako 28.2 artikuluan adierazitako eran. Zerbitzu hori bereziki diseinatuta dago indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko.

Hartzaileak:

- Gizarte bazterketako egoeran dauden eta gizarteratzeko prozesua egiteko gaitasuna nahiz motibazioa duten pertsonak.
- Indarkeria matxistaren biktimak, horien seme-alabak eta, salbuespenez, errudunak.
- Bat-bateko babesgabeziaren arriskuan daudenak eta egoera bereziek sorturiko gizarte larrialdiko egoeran daudenak.
- Ezgaituak.

Programak ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen du:

A) Gizarteratzeko egoitzei dagokienez, programak hitzartutako plazen foru sarea finantzatzen du.

B) Indarkeria matxistaren biktimei eskainitako arretari dagokionez:

- Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroak.
- Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako eta haien seme-alabentzako arreta psikologikoko programa.
- Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako gizarte laguntza eta laguntza juridikoa.

C) Gizarte larrialdiak koordinatzeko foru zerbitzua: Gizarte larrialdiko egoeratan berehalako arreta ematea, baldin eta gizarte zerbitzuek esku hartzea beharrezko bada, eta zerbitzuen arteko esku-hartzeen koordinazioa bermatzea.

D) Desgaituentzako zentro okupazionalak.

2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.

	2012	2013	2014	13 / 12	14 / 13
Gizarteratzeko egoitzak	7.246.884	8.428.015		16,30%	
Gizarteratze programak	3.791.917	4.241.864		11,90%	
Zentro okupazionalak.	6.269.164	6.269.164		0,00%	
Desgaituak					
Indarkeria matxistari eskainitako arreta	987.899	1.047.506		6,00%	
Sarbideak. Prestakuntza	1.065.388				
Beste batzuk	3.728.753	1.832.577		-50,90%	
Guztira	23.090.005	21.819.126		-5,50%	

Gastuaren zatirik handiena gizarteratzeko egoitzen sare hitzartuari eta mendekoentzako zentro okupazionalari zuzentzen zaio. Ondoren gizarteratzeko programak eta indarkeria matxistari eskainitako arreta daude.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera



3. taula. Zerbitzu nagusietan 2012. urtean arreta jaso dutenak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Gizarteratzeko egoitzak	1.061	78%	22%
Gizarte larrialdiak	591	42%	58%
Zentro okupazionalak. Desgaituak	849	64%	36%
Indarkeria matxistari eskainitako arreta	576	13%	87%
Sarbideak. Prestakuntza	370	30%	70%
GUZTIRA	3.447	52%	48%

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Gizarteratzeko egoitzak	1.061	78%	22%
Gizarte larrialdiak	591	42%	58%
Zentro okupazionalak. Desgaituak	849	64%	36%
Indarkeria matxistari eskainitako arreta	576	13%	87%
Sarbideak. Prestakuntza	370	30%	70%
GUZTIRA	3.447	52%	48%

Ikus daitekeenez, gizonezkoen proportzio handiagoa dago gizarteratzeko egoitzetan eta desgaituentzako zentro okupazionalan. Aldiz, emakumezkoen proportzio handiagoa dago indarkeria matxistari eskainitako arretan eta enplegurako prestakuntza programan (Sarbideak). Ostaturik gabeko gizarteratze programetan ez da sexuaren datua jasotzen.

4. taula. Indarkeria matxistaren biktimenzako arreta zerbitzuetan 2012. urtean artatutakoak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Indarkeria matxistaren emakume biktimenzako egoitza zentroa (1).	102	28%	72%
Indarkeria matxistaren emakume biktimenzako arreta psikologikoa (2).	436	10%	90%
Indarkeria matxistaren emakume biktimenzako arreta juridikoa (2).	38	5%	95%
GUZTIRA	576	13%	87%

(1) Indarkeria matxistaren emakume biktimenzako egoitza zentroan emakumeen ardurapean dauden pertsonen ere arreta eskaintzen zaie: seme-alabak eta adineko menpekoak.



(2) Indarkeria matxistaren emakume biktimezako arreta psikologikoko eta juridikoko programetan gizonezkoen ere, erasotzaile nahiz biktimei, arreta eskaintzen zaie. Ikusi 5. taula.

5. taula. Indarkeria matxistaren emakume biktimezako arreta psikologikoko programan 2012. urtean artatutakoak:

	GUZTIRA	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Biktimak (% 90)	414	6%	94%
Erasotzaileak (% 10)	22	100%	6%
GUZTIRA	436	10%	90%

Indarkeria matxistaren emakume biktimezako arreta zerbitzuetan (egoitza zentroa, arreta psikologikoa eta juridikoa) artatutako bikote homosexualen dagokienez, 2012. urtean ez da halakorik artatu. 2010. urtean, bikote homosexual bateko kide zen emakume biktima bat artatu zen.

6. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2012an
(artatutako pertsonak 100 biztanleko)

714.360 biztanle	GUZTIRA	G	E
Gizarteratzeko egoitzak	0,15	0,12	0,03
Zentro okupazionalak. Desgaituak	0,12	0,08	0,04
Gizarte larrialdiak	0,08	0,04	0,04
Indarkeria matxistari eskainitako arreta	0,08	0,01	0,07
Sarbideak. Prestakuntza	0,05	0,02	0,03
GUZTIRA	0,48	0,25	0,23

Ikus daitekeenez, biztanleria osoarekiko estaldura garrantzitsua da, baina kontuan hartu behar da jarduera horiek oso diferenteak direla elkarren artean.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Aurrekontu programa honetan jasotzen diren jarduerak oso diferenteak dira eta lotura gutxi duten beren artean. Azterketak erakusten du emakumezkoak nabarmen gainordezkatuta daudela gizonezkoen aldean, indarkeria matxistari eskainitako zerbitzuetan. Prestakuntza programetan ere, zirkuitu ofizialetik kanpo, gainordezkatuta daude.

Aldiz, emakumezkoen presentzia txikiagoa da desgaituentzako zentro okupazionaletan eta, batez ere, gizarteratzeko egoitzetan. Ikerketa guztiek agerian uzten dute emakumeek narriadura pertsonal handiko kasuetan erabiltzen dituztela horrelako zerbitzuak. Emakumeek luzaroago mantentzen dute bere autonomia eta premia larriko kasuetan bakarrik jotzen dute horrelako zerbitzuetara.

Aitzitik, emakumezkoak gehiago dira gizarteratze zentroetako langileen artean, gainerako gizarte zerbitzuetan bezalaxe.

**GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2013	318.020.776 euro
		2014	327.384.199 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Haur eta nerabeen babes.

Kodigoa 3.31

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 39.796.550

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (milaka euro)	35.320,00	38.011,03	39.072,17	39.796,55	7,62%	2,79%	1,85%
DEPART. AURREKON. %	9,93%	11,76%	12,29%	12,16%	18,41%	4,47%	-1,03%

Programa honek Departamentuaren aurrekontuaren % 12,3 hartzen du, eta horrek erakusten du gaiak duen garrantzia. Gainera, 2013an, nabarmen handitu da bere pisu erlatiboa.

Programaren helburuak, hartzailleak eta jarduerak

Aurrekontu programa honetan adingabeen arloan Departamentuak dituen jarduera ildo nagusiak jasotzen dira, inbertsioak alde batera utzita. Departamentuaren aurrekontuaren zati handi bat hartzen duen programa da.

Helburu orokorra da babesgabezia egoeran dauden adingabeei arreta egokia ematea, egoitza harreraren bidez (ohiko ingurunetik ateratzea beharrezkoa denean) nahiz etxean bertan esku hartuz, egoerak hala eskatzen duenean.

Gipuzkoan guztira 120.607 adingabe daude eta programa hau Gipuzkoan babesgabezia egoeran edo arriskuan dauden adingabeentzat zuzenduta dago, baita haien familiekin lana eginez.

Gastuaren zatirik handiena, egoitza harrerako sarera bideratzen da eta familien esku-hartzean eta diru laguntzetan egiten den gastua ere garrantzitsua da.

Programak ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen du:

**2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.**

	2012		2013	
Balorazioa eta orientazioa	1.103.131	2,90%	1.429.608	3,66%
Familian esku hartzea	4.302.813	11,32%	3.613.202	9,25%
Familia harrera	1.553.550	4,09%	1.962.100	5,03%
Adigabeenganako abusuen tratamendua	1.077.815	2,84%	797.282	2,05%
Egoitza harrera	23.104.948	60,79%	23.594.092	60,39%
Laguntza ekonomikoak	3.150.000	8,29%	3.150.000	8,07%
Beste batzuk	3.714.428	9,77%	4.525.890	11,59%
Guztira	38.006.685		39.072.174	

Programak ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen du:

A) Egoitza harrerari dagokionez, programak finantziatzen du babesgabezia egoeran dauden adingabeentzako zaintza plazen foru sarea.

- Zaintza zentroak eta larrialdiko harrera zentroak

B) Familia ingurunean arreta eskaintzeko laguntzari dagokionez:

- Familian esku hartzeko eta familia harrerako programen finantziakzioa.

Bukatzeko, hemen kokatzen da haurren babesgabeziaren balorazioa. Balorazioa funtsezkoa da adingabeen diagnostikoa eta orientazioa egiteko, indarrean dagoen legedia betez.

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera**3. taula. Zerbitzu nagusietan 2012. urtean arreta jaso dutenak:**

	GUZTIRA	GIZONEZKO AK	EMAKUMEZ KOAK
Adingabeen kopurua guztira	120.607	51,28%	48,72%
Balorazio eta orientazio zerbitzua	326	54,26%	45,74%
Familiak esku-hartze programak	1.382	58,63%	41,37%
Familia harrera	315	57,08%	42,92%
Egoitza harrera	263	64,01%	35,99%
Diru laguntzak	844	62,50%	37,50%
GUZTIRA	3.130	58,30%	41,70%

Ikus daitekeenez, mutilen proportzio handiagoa dago zerbitzu guztietan, oszilazioen batekin.



4. taula. Zerbitzu nagusien estaldura 2012n
(artatutakoak, 18 urtez beherako 1.000 biztanleko)

120.607 biztanle	GUZTIRA	G	E
Balorazio eta orientazio zerbitzua	2,7	1,5	1,2
Familian esku hartzeko programak	11,4	6,7	4,7
Familia harrera	2,6	1,5	1,1
Egoitza harrera	2,2	1,4	0,8
Diru laguntzak	6,9	4,3	2,6
GUZTIRA	25,9	15,1	10,8

Adingabeen guztizkoaren gaineko eragina baxua da, baina Europako altuenetako bat da (Iturria: SIIS).

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Azterketak erakusten du mutilek nolabaiteko gainordeztzaritza dutela. Horren arrazoia izan daiteke bakarrik dauden atzerritar adingabeen presentzia, ia gehienak mutilak baitira.

Aitzitik, emakumezkoak gehiengo dira adingabeentzako baliabideetako langileen artean, gainerako gizarte zerbitzuetan bezalaxe.

**GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA	Gizarte Politika	2013	318.020.776 euro
		2014	327.284.199 euro

PROGRAMA ETA ZENBATEKOA

Izena Garapenerako lankidetzatza

Kodigoa 3.40

Genero Egokitasuna Handia

Aurrekontua 3.950.843

1. Taula**Programaren aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentaia**

	2011	2012	2013	2014	12/11	13/12	14/13
GASTUA (mila eurokoak)	4.361,00	4.089,00	3.848,00	3.950,84	-6,24%	-5,89%	2,67%
DEPARTAMENTUAREN	1,23%	99,98%	1,21%	1,21%	8053,33%	-98,79%	-0,23%

Programaren helburuak, hartzailleak eta jarduerak

Aurrekontu programak Departamentuaren jarduera ildo nagusiak jasotzen ditu eraldatzailea den lankidetzatza politika bat sustatzeko, honako helburu hauekin:

Gizakiaren garapen iraunkorra sustatzea, hiritartasun unibertsalaren kontzeptuan oinarrituta, pobrezia desagerraraztera bideratua eta pobreziaaren egiturazko arrazoiengan arreta jarrita (arrazoi politikoak, ekonomikoak, gizarte arlokoak, ingurumenari buruzkoa, generoari buruzkoak), eraldaketa gai diren pertsonen laguntza eskainiz garapenerako hautabideak abian jarrita.



Hartzaileak:

2. Taula

Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua

	2012	2013	2014	13 / 12	14 / 13
Proiektu berriak hegoaldeko herrialde pobretuetan	2.406.737 €	2.264.599		-5,90%	
Gizarte eraldaketako eta garapenerako hezkuntzako proiektu berriak	590.000 €	555.156		-5,90%	
Ekimen puntual berriak	176.000 €	165.606		-5,90%	
Ekintza humanitarioak	200.000 €	188.188		-5,90%	
Konprometitutako proiektuan jarraipena	716.912 €	674.572		-5,90%	
Guztira	4.089.649 €	3.848.121		-5,90%	

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Jardueren ezaugarriak kontuan hartuta zaila denez onuradunen edo programaren subjektu diren pertsonen kontrola egitea, datuak emakumeen ahalduntzea helburu duten entitateei emandako diru laguntzetatik bananduta adierazten dira. 2012 eta 2013. urteetako datuak modu konparatiboan adierazten dira

3. Taula

Kudeatutako diru laguntzak: kopurua eta zenbatekoa

	I. Eranskin		II. Eranskin		III. Eranskin		Guztira	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Aurkeztutako proiektuak	60	55	31	28	29	18	120	101
Onartutako proiektuak	15	15	8	8	8	8	31	31
Emakumezkoen arloan onartutakoak	7	5	3	2	2	2	12	9
Eskatutako zenbatekoak	8.157.795,97	6.838.393,07	2.153.230,12	1.874.863,35	616.158,75	401.418,53	10.927.184,84	9.114.674,95
Onartutako zenbatekoak	2.406.737,00	2.181.497,64	590.000,00	602.981,36	176.000,00	160.000,00	3.172.737,00	2.944.479,00
Emakumezkoen arloan onartutako	848.767,69	715.960,73	206.219,95	154.101,94	47.934,81	47.000,00	1.102.922,45	917.062,67

Halaber, aurten sinatutako lankidetzarako hitzarmenen zerrenda, iazkoen antzekoak dira. Kasu honetan, nahiz eta generoa zeharkakotasunez lantzea eskatu, hitzarmen horietako bat bakarrik dago talde feminista batek sinatuta, zeinaren helburu bakarra emakumeen ahalduntzea. (SOF da eta Emakumeen Nazioarteko Martxaren nazioarteko idazkaritza du).



4. taula
Baimendutako hitzarmenak

Onartutako hitzarmenak	Zenbateko
Munduko emakumeen martxa	115.000,00
"Via campesina"	115.000,00
Euskal Fondoa	115.000,00
GGKEen Koordinakundea	30.000,00
Sahara Koordinazio Unitatea	30.000,00

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Uste dugu, programa honen helburu diren jardueren genero eragina oso handia dela, izan ere generoaren ikuspegi zeharkako bihurtzea ezinbestekoa da garapena ekitatiboa izan dadin.

Hala ere, zaila da horren eragina baloratzea, garapenerako lankidetzako esku-hartzeak tokiko kontraparteen bidez egiten direlako (bai elkarren arteko lehiaren bidez edo zuzeneko diru laguntzen bidez). Kontraparte deitutako horiek proiektuaren helburu diren populazioekin zuzenean lan egiten duten entitateak dira. Talde hauen kasuistika era askotakoa da.

Lankidetzako proiektuek generoan duten eraginari buruz datu erabakigarriagoak lortzeko helburuarekin, aurreikusita dago 2014. urtean Foru Aldundiak diruz lagundutako ekimenen kanpoko ebaluzioak egitea.

Hala ere, I. eranskineko (Hegoaldeko herrialde eta herri behartsuetan garapen proiektuak gauzatzeko diru laguntzak) eta III. eranskineko (Hegoaldeko herrialde eta herri behartsuetan unean uneko ekimenak eta ekintzak egiteko diru laguntzak) proiektuetan generoaren zeharkakotasunaren baremazioaren azterketa kuantitatiboa eginda, ondorioztatzen da emaitzak baxu samarrak direla. Ezin badugu ere joerei buruz hitz egin, soilik 2012 eta 2013ko datuak ditugulako, garbi ikusten da 2013. urteko puntuazioak 2012koak baino baxuagoak direla.

Aztertzen ari gara hainbat ekimen egitea, hurrengo urtean datu horiei buelta emateko.

Programa honen xede diren jarduerak duten genero eragina handia da, emango zaion ikuspegiak erabakiko baitu garapen mota hori bidezkoagoa izatea edo ez.